

# Kostuen egitura

Proiektuak, mesedeen elkartrukeei esker, norberaren egunerokoa erraztea ahalbidetzen du, baina horretarako, ordea, oinarrizko kostuei aurre egin behar zaie.

Lehen-lehenik, kostu finkoak, hau da, aldatzen ez diren kostuak. Webgunean hosting-a, aliantza bitartez elkarturiko enpresek eskainitako zerbitzuen kostua eta langileen soldata. Horrez gain, lokal bat alokatuko da. Horretarako, aurrezkiez gain, udaletxearen diru-laguntzarekin kontatuko da.

Beste aldetik, kostu aldagarriak, proiektua aurrera doan heinean sor litezkeen arazo zein egitasmo berriei aurre egiteko. Momentu puntualen batean ekitaldi bat antolatzea edo negozioari publizitatea ematea erabakiz gero esaterako, horrek suposatzen dituen kostuak izango lirateke hauek.

Negozio honetan, kostuak minimizatuko dira diru sarrerak urriak direlako, baina horrek ez du esan nahi kalitateari garrantzirik emango ez zaionik, bezeroei hoberena eskaintzen saiatuko da.